

GIPUZKOAN

190 positibo berri
9165 positibo guztira*

1.813 hildako EAEn
53 UCIn EAEn

NAFARROAN

274 positibo berri
14.226 positibo guztira

553 hildako
18 UCIn Nafarroan

*HERNANIN 301 (+3), ASTIGARRAGAN 53 (0)

(Nafarroako Osasun Saila)

URUMEA BAILARAKO EGUNKARIA



Astigarragako erdigune, Erribera

ASTIGARRAGA
KULTURA

8-9



«Egoiliarrak gogoz», familiak ikusteko

HERNANI
UDALA


5



«Presio pixka bat dut; lagunak eta familia etorriko dira ikustera»

HERNANI
UNAI BALERDI

2-3



«Lehertuta eta baliabiderik gabe», osasungintzan

Mobilizazioak hasi zituzten atzo osasungintzako langileek, lehenengo arretako zentroetan; eta kalera atera ziren Hernaniko anbulatorioko langileak ere, «kalitatezko osasungintza publiko baten alde».

6

«Zaintzari eta emozioei garrantzia», Gaztelekuak

HERNANI
GAZTELEKUA

15



Hainbat kirol martxan, batzuk hastear

URUMEA
KIROLA

10-12



Finalera pasea, jokoan

Gaur finalerdia jokatuko da Galarretan, 17:00etatik aurrera, eta bertan Juanenea eta Endika ariko aurkari.

HERNANI
ERREMONTA

14

Zinemaldia, distantziarekin

Inaugurazio gala desberdinarekin hasi zen atzo eta orain izarrak eta pelikulak ikusteko garaia da datozen egunetan.

URUMEA
ZINEA

16

Zure bizitza **EUSKARAZI!**

MATRIKULA IREKITA

Astean 2 edo 4 egun, autoikaskuntza
Maila guztiak - Jarraipen pertsonalizatua

Dirulaguntza handiak:

- % 70 Hernanin erroldatuta bazaude
- % 90 langabetu, ikasle edo erretiratuentzat

TITULUA NAHI?
A1, A2 eta B1, euskaltegian bertan.
B2 eta C1: oso emaitza onak!!!

HERNANIKO Udal Euskaltegia
Karobieta 63, Hernani
Bulegoko ordutegia: 09:30-13:30 / 16:30-19:30
Tel. 943 331 896 / 688 826 539 / euskaltegi@hernani.eus

20/21 ikasturtea

«Presio pixka bat dut; lagunak eta familia etorriko dira ikustera eta zertxobait urduri nago»

Unai Balerdi hernaniarra Aukeran Dantza Konpainiako dantzaria da, eta bihar Hernanin ariko da oholtza gainean. 'Maurizia Naz' dantza ikuskizuna eskainiko du Atsegindegin.

HERNANI UNAI BALERDI MURIAS

Unai Balerdi Murias hernaniarra 19 urte ditu eta Aukeran Dantza Konpainiako taldeko kidea da. Esperientzia zabala du dantza munduan eta txikitatik du arte honekiko pasioa. Oso goiz hasi zen dantzan, «9 edo 10 urterekin», eta ordutik eszenatoki askoren gainean aritu da emanaldiak egiten. Ttarlan hasi zuen bidea, Hernanin, eta atzera begira dio bertan dantzan aritu zeneko garaiko «oso oroitzapen politak» dituela.

Balerdik bihar du dantza emanaldia Hernanin, Atsegindegin. Aukeran Dantza taldearekin *Maurizia Naz* ikuskizuna eskainiko du arratsaldeko 19:30etan. «Presio pixka bat dut; lagunak eta familia etorriko dira ikustera eta zertxobait urduri nago», aitortu du dantzariak. Donostiako Tabakaleran aurkeztu zuten dantza emanaldia, eta bihar Atsegindegira gerturatzen direnek Balerdi eta bere taldekideekin gozatzeko aukera izango dute.

«Madrilgo aukera azken momentuan baztertu nuen»

19 urteko gaztea bada ere, Balerdik ibilbide luzea du dantzarri lanetan. Ideiak argi dituen mutila da, baina etorkizunean datorrenari ere «indartsu» helduko diola azaldu du. Dantza da bere pasio «bakarra» eta heldua denean honetan jarraitu nahi duela azaldu du.

Hernaniarra hainbat dantza talde eta konpainiatan aritu da dantzan, eta jende asko ezagutu du ibilbide guzti horretan. «Hernanin, Ttarlan, oso gustura ibili nintzen, baina ordutegi arazoengatik Oinkarira joan nintzen,

Billabonara». Eta bertan zegoela, dantzari moduan bere ibilbideari 180 graduko aldaketa emango zion aukera eskaini zioten. «Etxe ondora hurbildu ziren dantzari batzuk eta balleta egitera animatzeko esan zidaten. Izugarri gustatu zitzaidan eta modalitate honetan buru-belarri hasi nintzen lanean», kontatu du Balerdik.

Horrela heldu zen hernaniarra Madrilerara. «Dantza kontserbatorioan balleta ikasteko sarbide probak egin nituen, eta hautatua izan nintzen», azaldu du. Baina azken momentuan aukera ezeztatzea erabaki zuen: «etxera heldu nintzen eta pentsatu nuen hobe nuela unibertsitateko ikasketetan arreta jartzea». Horrela, gaur egun arkitekturako ikasketak burutzen ditu Balerdik, eta graduko bigarren mailan dago.

«Aukeran Dantza Konpainiara entsegu bat egitera joan nintzen eta taldeko kide izateko proposamena luzatu zidaten; bat-batekoa izan zen dena»

Arkitekturako ikaslea eta dantzari profesionala da. «Unibertsitateko gradu honetan sartzea ere bat-batekoa izan zen. Bartzelonara joan nahi nuen, deseinuarekin zerikusia zuen zerbait egitera. Baina ikusi nuen hemen horrelako antzeko zerbait egiteko aukera izango nuela eta berean, etxean ere egongo



Unai Balerdi hernaniarra, Kronikarako elkarrizketan.



Aukeran Dantza Konpainiako kideak, Tabakaleran aurkeztutako 'Maurizia Naz' emanaldian. Argazkia: Karlis Medrano.

Kronika

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 08 99
688 660 714

Lege gordailua:
SS-1469/2018
ISSN: 2659-5036

Eposta:
kronika@kronika.eus,
astigarraga@kronika.eus,
urumea@kronika.eus eta
publi@kronika.eus.
www.kronika.eus

Lan-taldea:
A. Arbelaitz, O. Egaña, I.
Goñi, L. Goñi, A. Isasa,
B. Los Arcos, J. Osa,
M. Ramirez de Alda, I.
Santa Kruz eta J. Zubitur.

Argitaratzailea:

DOBERA
EUSKARA
ELKARTEA

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 27 99
Eposta: dobera@dobera.eus
www.dobera.eus

KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Astigarragako Udala



Auzo Udala



GOIUEKAKO UDALA



ARANOKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DOBERA BAZKIDEAK
KRONIKALARIAK

TOKIKOM

2015 **Bikain**



PEFC

nintzen; eta horregatik aukeratu nuen arkitektura».

Guztira lau dantza saio egiten ditu astean hernaniarrak: «Aukeranekekin bi eta balletean beste bi». Gazteagoa zela Donostiako Thalia ballet eskolan egiten zuen dantza, baina orain Pasaian ari da dantzari, Iker Murillo koreografo eta dantzariarekin. Unibertsitateko eskolak ere arratsaldez ditu aurten, «baina nahiko ondo moldatzen naiz guztiarekin», azaldu du irribarre batekin.

«Bere pasioa erakusteko beldurra duen mutil horri esango nioke guztiaz ahazteko eta dantza gustuko badu, aurrera egiteko, merezi du eta!»

Ibilbide guzti honetan dantza modalitate ugari landu ditu Balerdik. «Guztia gustatzen zait eta hortaz, ez zait gustatzen bakar batean zentratzea; nahiago dut aldatzen joan. Momentu honetan nire gustukoena garaikidea dela esango nuke». Ttarla zegoela euskal dantza landu zuen gehienbat. «Oinkarin ere euskal dantza egiten nuen, baina orain ez dakit modalitatea zertxobait aldatuko zuten», kontatu du.

Dantza txapelketetan ere ari da Balerdi dantzan. «Gustuko nuen txapelketetan parte hartzea, baina nahiago dut taldean dantzatu», onartu du hernaniarrak. Herrian bertan egiten diren dantza lehiaketetan hartu izan du parte, eta lehenengo postua lortu du behin baino gehiagotan. «Garai horretan balleta zen gehien gustatzen zitzaidana, eta egiteko gehiegi eta denbora gutxi nuenez, aukera batzuk baztertu behar izan nituen». Baina onartu du, orain «zoritzarrez» balleteko entseguetara ere gutxiago joaten dela. Unibertsitateko ikasketetan eta Aukeran Dantza Taldean du jarrita arreta guztia.

Balletean Donostiako Kontxako ohiko emanaldietako askotan egon da Balerdi, eta urtean zehar Donostiako kaleetan egiten ziren emanaldietan ere bere trebetasunak erakutsi ditu. «Eta bi urtean behin dantza emanaldi potolo bat egiten genuen balleteko taldekoek», gehitu nahi izan du.

Eta gainontzeko dantza taldeetan modalitate garaikidea eta beste dantza motak ere ikasi ditu. «Aukeran Dantza Konpainian, esaterako, hainbat modalitate nahasten ditugu», azaldu du.

«Dantzak esfortzu haundia eskatzen du»

Ados dago Balerdi, dantza mundua «sakrifikatua» dela esaten duten horiekin. «Batzuetan zenbait komentario entzuten ditugu dantza kirola ez dela edo esaten dutena; eta hori ez da horrela». Izan ere, ikusleek dutena azken produktua da. Dantzariak ohol-tza gainera igotzen direnean ordubeteko emanaldiaz gozatuko dute ikusleek, baina ziurrenik ez dute pentsatuko dantza ikuskizun hori egiteko hilabeteetako lana dagoela atzean. «Pausuak ikasi, estiramenduak egin, malgutasuna lortu... gauza dexente landu behar ditu dantzari batek».


«Entsegu batera joan nintzen probatzera, eta taldean sartzeko aukera eskaini zidaten»

Bihar Hernanin ariko da dantzan

Bi urte daramazki Balerdik Aukeranekekin, eta «asko» ikasten ari dela dio. Dantza munduan izen haundiko taldea da Aukeran, eta maila altuko dantzariak soilik dute bertan egoteko aukera. Dantza tradizionalaren eta garaikidearen mestizajearen oinarritzen dira konpainiaren lanak, zenbaitetan musika eta dantza tradizionalaren erritmo bizia hautsiz, pausoak mantso-tuz edota deseraikiz. Aukeran taldea Donostian 1997 urtean sortu zen Edu Muruamendiarrak dantzari eta koreografoaren ekimenez; orduz geroztik ibilbide luze eta aberatsa jorratu du.

Balerdi joan den urtean fitxatu zuten: «entsegu batera joan nintzen probatzera, eta taldean sartzeko aukera eskaini zidaten». Bihar *Maurizia Naz* emanaldia aurkeztuko du Hernanin bere taldekideekin batera. Muruamendiarrak da ikuskizuneko zuzendaria eta koreografoa, eta beste lau dantzariarekin batera, «panderojole baten istorioa kontatuko dugu», esan du Balerdik. Emanaldiko sinplisiak interesa eta intriga erpizten dio irakurleari: «Egunkari orri bati sua emanez panderoaren larrua berotu du Mauriziak. Kontu handiz, bizitzak erakutsi baitio beroa ez dela beti goxoa, gehiegi gerturatuz gero, garrek, pasioen antzera, erre egin zaitzaketa», aurreratu dute emanaldiko aurkezpenean.

Uda hasieran hasi ziren proiektu hau entsaiatzen eta emanaldiari forma ematen; eta bihar estreinatuko dute biga-



Unai Balerdi 'Maurizia Naz' dantza emanaldian, panderoa eskutan duela. Argazkia: Karlis Madrano.

arren aldiz. Lehena Donostiako Tabakalera izan zen: «Lehenengo aldia zen eta zertxobait urduri ginen, baina ondo ateraz», kontatu du hernaniarrak. Bigarren txanda honetan ikusleak aho zabalik uzteko prest agertuko dira Aukeranekeok.

«Ez dut arazorik izan nire generoagatik»

Tamalez dantza munduan emakume gehiago ikusten dira ohol-tza gainean, gizonezkoak baino.

Balerdik dio ez duela «inolako» arazorik izan bere generoagatik; alderantziz «txikitatik gozatu dut dantza munduarekin eta beti izan dut nire inguruko babesa».

Izan ere, oso txikitatik dator kio Balerdiri dantzan aritzeko zaletasuna. «Etxekoek kontatu didate nire osaba dantzari ospetsua zela herrian», eta hortaz, baliteke hernaniarraren dantzarako gaitasuna bertatik etortzea.

Etorkezunean ez daki zer

egin duen eta non egongo den, baina argi du dantzan jarraitu nahi duela. Arkitekturako graduaren gustora dago balerdi, eta ikasketan bukatu nahi ditu, Donostian. Bere zaletasuna dantzatzea da txikitatik eta horretan jarraituko du aurrerantzean ere. Balleta, dantza garaikidea edota euskal dantza, nork daki, baina herriko plazetan eta antzoki haundietan ere urte askotan dantzatzen jarraitzea da Unai Balerdiaren ametsa. **K**

Hernaniarrek
NAN-a erakutsita

5€

*Hernani,
erremontearren babesle*

XXXVII. BURUZ BURUKO ERREMONTTE TXAPELKETA KUTXABANK SARI NAGUSIA 2020

FINALAURREA

Irailak 19, larunbata

Galarreta Jai-alai pilotalekua | 16:00



sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa.

GIPUZKOA
TURISMOA

DV

ORIAMENDI



Orona
Fundazioa

Pelotadenda.com

PAPELERA GUIPUZCOANA
DE ZICUÑAGA, S.A.U.

utr

«Egoiliarrak ondo daude, desiatzen familia ikusteko, normaltasunera itzultzeko eta kalera ateratzeko»

Azken boladan, kasu positiboek gora egin dute Hernanin, eta haietako batzuk zaharren egoitzan izan dira. Xabier Lertxundi herriko alkateak, Udalak dituen kezka helarazi dizkio Kronikari eta lasaitasun mezua ere bidali nahi izan die herritarrei.

HERNANI UDALA

Azken aldian, bai herrian, bai eta zaharren egoitzan positiboak agertu dira, nola kudeatu duzue hau guztia?

Egia da, orain herrian kasu positibo gehiago ari direla ematen. Guri, Udalarri, Osasun Sailak zuzenean ez dizkigu datuak ematen, webgunean bai egiten dituztela publiko. Gurekin harremanetan jartzen da, baldin eta detektatuko balute rebrote komunitario bat. Beraz, Hernanin kalean eman diren kasuak, positibo aislatuak dira, eta horregatik ez digute abisurik pasa, ez dagoelako rebrote komunitarioarik, esan daiteke normaltasun batean sartuta dagoela. Hala ere, momentu honetan, kezka iturri nagusia zaharren egoitza da, zaharren egoitza bada rebrote haundi bat. Orain arte 42 egoiliarrek eman dute positibo guztira, hau da, lehenengo kasua antzeman zenetik, eta 18 langilek. Eta 5 hildako izan dira guztira.

Beraz, egia esan zaharren egoitzak bai kezkatzen gaitu, badira pare bat aste, lehenengo positibo detektatu zenetik, abuztuaren 10ean, astelehena. Neurriak hartu ziren, eta ikusi dugu, oso erraz eta azkar pasatzen dela birusa, oso kutsakorra dela. Eta egia esan, gure indar guztiak han daude, zaharren egoitzan zentratuak.

Kanpotik, dena zenbakiekin ikusten da, nola bizi duzue hau dena barrutik, Udaletik?

Bai, diozun moduan, kanpotik zenbakiak ikusten dira, hainbat positibo daudela. Baina gertutik ikusita, ni adibidez egunero joaten naiz bertara, biltzen naiz talde teknikoarekin. Eta bai, zenbakiak dira, baina hor atzean pertsonak daude, eta familiarak ere. Eta horrek bai suposatzen du, nolabaiteko karga, eta beste kezka bat. Azkenean birusa ez hedatzeko, aislatu egin behar gara, baina aislatze horretan bakardadea ere hor dago. Eta zaharren egoitzan dauden pertsonen behar dute jendearen eta familiarren kontaktu hori. Gu

saiatzen ari gara, kontaktu hori telefonikoki ematen, baina fisikoa ez. Eta nahiz eta langileak posible duten guztia egin, falta hori nolabait orekatzeko, familiarreko baten kontaktua inoiz ezin duzu eman. Beraz, kezka haundia daukagu, zenbaki batek haratago dagoelako pertsona bakoitzaren egoera. Zoritxarrez, zaharren egoitzako bi pertsona hil dira, Covid-19a dela eta, adin altukoak ziren, eta zorionez esan dezakeguna da, batzuk sintomak eduki dituztela, baina nahiko modu arinean, eta beste asko asintomatikoak direla. Horrek ere, lasaitasun apur bat ematen digu, egoera larri-larririk ez dugulako ikusi, osasun aldetik. Baina berriro diot, alde sozialetik bai, eta horrek kezkatzen gaitu.

Nola berrantolatu duzue zaharren egoitza?

Zaharren egoitzako antolaketa berriarekin, pandemia hasi zenean hasi ginen, martxoa inguruan. Garai hartan, ez genuen positiborik izan, baina sintomak zeuden, beraz protokoloak zeuden pertsona hauek aislatzeko. Orduan, suposatzen du zaharren egoitzako estruktura guztia aldatzea, sortu behar direlako sektoreak, hau da, zaharren egoitza sektorizatu egin dugu. Eraikinaren gune bat, alde gorriak hartzen du, hau da, positiboak diren kasuak. Bertan lanean dauden langileek ezin dute beste aldera pasa. Sintomak dituztenak, baina PCR proban negatibo eman dutenak, sektore laranja daude. Kontaktua eduki dutenak positiboren batekin, eta sintomarik ez badute, sektore horian daude. Eta ez kontaktuzuzenik, ezta sintomarik ere, alde txurien kokatzen dira.

Babes neurriak ere, desberdinak dira, positiboekin zuzenean egonez gero lanean, Epi oso bat jantzi behar dute langileek, gelaz gela zaudenean, aldatu egin behar duzu arropa. Azkenean daude protokolo oso zorrotzak eta oso zehaztuak, eta horiek denak jarraitzen ari gara. Pertsonala gainera, errefortzaturik dago, ohiko pertsonala bai-



Egunero joaten da Xabier Lertxundi zaharren egoitzara, bertako teknikariek bildu eta egoera zein den jakitera.

no gehiago dago, pandemia garaian ere berdina egin genuen. Eta gainera, azpimarratu nahi dut, langileek egiten duten lana ikaragarria dela, ohiko lana zoriontzekoa eta txalotzekoa baldin bada, horrelako egoera batean eta estres egoera batean are gehiago. Beraiei, langileei eskatzen zaizkien protokolo eta neurriak oso zorrotzak dira, eta bete egiten dituzte, orduak sartzen ari dira, egia esan ikaragarria ari da izaten beraientzat. Zoriontzeko modukoa da.

Honek argi uzten duena da, horrelako zerbitzua publikoa izatea ze garrantzitsua den. Enpresa batek, bitarteko horiek guztiak jarri ditzake, enpresaren helburua dirua irabaztea denean? Guk hemen garbi eduki dugu, lehen-tasun guztia, zaharren egoitzak du. Martxoko pandemian eta orain, ez gara diru kontuetan hasi, baizik eta, zer da behar dena. Jartzen dugu materiala, pertsonala... behar den guztia denak ondo egoteko. Eta ondoren egingo ditugu diru kontuak.

Nola sentitu dira langileak, eta adinekoak?

Ba langileak bai daudela estresatuak, eta tentsio puntu batekin. Eta lehen aipatu dudana, beraiek urte osoan egiten duten lana asko da, eta garai hauek egiten dutena oraindik eta gehiago. Azkenean ez da batere erraza, neurri guztiak hartuta ere, protokoloak zorrotz beteta ere, birusa zabaldu egiten dela ikusten duzu. Eta alde horretatik, langileek bai dutela urduritasun puntu bat. Hala ere, azpimarratu nahi dut, egoitza ez dela

kaos bat, egoitzan egoiliarrak ondo daude, batzuk sukar apur batekin, baina hori beti gertatu izan da. Egia da desberdintasuna, sektorizatuta eta aislatuak daudela, geletan. Baina familiarrei eta herritarrei lasaitasun mezua bat helarazi nahiko nieke. Guk familiarrei egunero deitzen diegu, familia guztiak egunero egoitzatik dei bat jasotzen dute, datu guztiak aipatzen dizkiegu. Guk argi daukagu familiarrek direla lehenengo jakin behar dutenak, eta jakiten dute egoitza osoan zer ari den gertatzen. Eta noski, bere familiarra zer moduz dagoen edo zer nolako egoeran dagoen. Badakigu, familiarrak gogoz daudela kontaktua edukitzeko haien helduekin, eta era bat ulertzekoa da. Baina oraingoz eta zoritxarrez, oraindik ezin dugu baimendu.

Orokorrean egoera lasaia da, jendea ondo dago, baina lan asko egiten ari dira langileak. Eta egoiliarrak ere desiatzen daude euren familiarak ikusteko, nahiz eta ez ondo egon, normaltasunera itzultzeko eta kalera ateratzeko ere bai.

Beraz, momentu honetan, egoera nolakoa da?

Aldundiarekin eta Osasun zentroko medikuekin lanean ari gara, eta kasu honetan, Aldundiak baditu errekurso desberdinak bideratuta. Hori dela eta, positibo eman duten pertsona batzuk Eibarreko egoitza batean daude, horretara bideratua baitago. Batzuk han daude, eta badakigu ondo daudela. Beste batzuk, sintomak zituztenak adibidez, ospitalera bidali ziren,

hala ere, batzuk bueltan datoz, ondo daudelako. Beste hainbat hemen, Hernanin gelditu ziren. Egoera beraz hori da, geletan aislatuak daude, sektoreka banatuak, eta egunero-egunero egoera begiratzen eta egokitzen, egunero baitaude aldaketak.

Aurrera begira, zer daukazue pentsatuta?

Lankidetzan jarraitzea, protokoloak zorrotz betetzea, behar diren baliabide guztiak jartzea, egoera honi aurre egiteko, bai egoitzan eta bai herrian. Eta egunero egokitzea. Guretzat gainera oso garrantzitsua da lankidetzak, adibidez, Hernaniko anbulategiarekin ari garen moduan. Beraz elkarlana azpimarratu nahi dugu, oso inportantea delako.

Asteartean, berri bat argitaratu zen, 2018 eta 2019ko superabitaren zati bat, inbertsio jasagarrietan erabiltzeko aukera emango diela Udalei, Espainiako Gobernuak. Zer egingo du Hernanik honekin?

Espainiako Gobernuak, egia esan baditu arau oso zorrotzak, esaten diena Udalei, diru hori zertan erabili behar duen. Neurri hauek, korrupzio garaiak zirenean ezarri ziren. Beraz, oraindik ez dakigu zehazki zer ekarriko duen finantziario kontu honek. Hala ere, zenbat eta flexibilitate gehiago eman Udalei gure dirua kudeatzeko, beti modu erresponsable batean, eta malgutasuna ematen badigu, gure errealitatea guk kudeatzeko aukera izango dugu. Oraindik ikusi behar da, nola zehazten duten, finantzioazio hau. **K**

«Kalitatezko osasun publikoaren alde», protesta atzo anbulatorioan

Kalera atera ziren atzo Hernaniko anbulatorioko langileak, «lehertuta eta baliabiderik gabe» daudela salatzen.

HERNANI ANBULATORIOA

Mobilizazioak hasi zituzten atzo osasungintzako langileak, ELA, LAB, SATSE, SME, CCOO, UGT, FSP eta ESK sindikatuek deituta, «kalitatezko osasungintza publikoaren eta langileen eskubideen alde». Eta Hernanin ere, kalera atera ziren anbulatorioko langileak, «lehertuta eta baliabiderik gabe» daudela adierazteko.

Eskuetan hartu zituzten karretetan, Osakidetzari leporatu zioten langileak alde batera utzi izana; prekarietatearen kontra egin zuten, kontratazio duinak eskatuz; eta nabarmendu zuten ez daudela soberan, eta murrizketa gehiago ez dutela nahi.



Hernaniko anbulatorioko langileak, atzo eguerdian egindako mobilizazioan.

Atzoko deialdia, lehenengo arretarako zentroetarako egin zuten; eta datorren ostiralerako, mobilizazioak deitu dituzte ospitale guztietan. Urriaren 3an, berriz, manifestazioa egingo dute Bilbon, 12:00etan.

33 positibo berri Hernanin, aste honetan zehar

Atzoko mobilizazioan azpimarratu zuten, gainera, «orain inoiz baino beharrezkoagoa» dela kalitatezko osasungintza publikoa.

Hernanin, azkeneko asteotan izan dira positibo berri gehien, eta Osakidetzaren azkeneko datuen arabera, 301 dira dagoeneko, herrian izan diren COVID-19 kasuak. Aste honetan, astelehenetik ostegunera, 33 kasu berri izan dira. Aurreko astean, berriz, 43 izan ziren pilatutako positiboak, zazpi egunetan.

Guzti horien artean daude, Zaharren Egoitzan atzemanda-koak: 41 egoiliar eta 15 langile izan dira, orain arte. **K**

Santiomendi eta ekialdeko mugak ezagutzera, irteera bihar goizean

Behemendik antolatu du, 09:30etan Murgia jauregian elkartuta; eta izena eman behar da.

Datorren astean, Igorin eta Akolako inguruetara.

URUMEA BEHEMENDI

Beterri-Buruntza eskualdea ezagutzeko, hainbat irteera gidatu antolatu ditu Behemendik, aste hauetarako. Eta biharkoan, Astigarragan barrena egingo dute ibilbidea: Santiomendi eta ekialdeko mugak ezagutzeko dituzte, goizeko 09:30etatik 13:30etara, Murgia jauregitik abiatuta: «gozatuko dugu mugarik gabeko bidez, eta ezagutzeko ditugu

mugarrien, Done Jakue bidearen eta abarren historia eta istorioak», aurreratu dute.

Parte hartzeko, baina, izena eman behar da alde aurretik, donostialdea@behemendi.eus helbide elektronikora idatzita.

Eta datorren larunbaterako, Hernanin jarri dute hitzordua. Ereñotzuko inguruetan ibiliko dira, Igorin eta Akolako mendilerroa zeharkatuko baitute, eta bertako altxorak ezagutu: Epe-

lerreka ondoko baso, landaretza eta fauna, Igorin eta Akolako megalitoak, eta baita inguruko paisaiak ere.

Irteera hori egiteko, Epeletik abiatuko dira, Irubide jatetxearen ondoko aparkalekutik, goizeko 09:30etan; eta lau orduko ibilbidea egingo dute.

Biharkoan bezala, horretan parte hartzeko ere izena eman behar da aurretik: mezua idatzi donostialdea@behemendi.eus helbidera, edo deitu 656 705 243 telefonora, astelehenetik ostiralera 09:00etatik 15:00etara.

Bederatzi laguneko taldea osatuko dute, gehienez ere. **K**

Harategia zabalik berriro, atzotik

GOIZUETA COVID-19

Bertako bi langileek COVID-19arekin positibo eman zutela eta, itxita egon da harategia, azken egunotan; baina atzotik zabalik dago berriro. Goizez irekiko dute gaur, eta ohiko ordutegian etzitik.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† **JULIA LOYARTE ESCUDERO**
ANDREA
Atzo hil zen, 98 urte zituela
- Goian bego -
Ilobak: Loyarte - Gines eta Beloso-Loyarte
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, LARUNBATA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. wAldez aurretik, mila esker.
Hernanin, 2020ko irailaren 19an
OHARRA: Gaur, larunbata, eguerdiko 12etan Hernaniko panteoi familiarrean lurperatuko da.

☀️ **JULIA LOYARTE ESCUDERO**
- Goian bego -
Aspaldi joan zitzaizkizunekin elkartzeko unea iritsi zaizu, izeba.
Zu izan zaitugu emakumeen indar eta adoreaeren eredu garbia
Eskerrik asko eta besarkada goxo bat.
ZURE ILOBA TXIKIAK
Hernanin, 2020ko irailaren 19an

† IV. URTEURRENA
Pedro Joxe Mugica Bidegain
"ANATX"
2016ko irailaren 20an hil zen, 87 urte zituela
- Goian bego -
Zurekin pasatako hainbat bizipenek, laguntzen digu betetzen, sumatzen dugun hutsunea
ZURE FAMILIAK
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **BIHAR, IGANDEA**, eguerdiko **HAMABIETAN**, Urnietako **MIKEL GOIINGERUAREN** parroki elizan egingo den urteurreneko mezara. Aldez aurretik, mila esker.
Urnietan, 2020ko irailaren 19an

† I. URTEURRENA
Mari Carmen Goñi Mendiguren
(Luis Urdangarinen alarguna)
2019ko irailaren 18an hil zen, 81 urterekin
- Goian bego -
ETXEKOAK ETA SENIDEEK
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **BIHAR, IGANDEA, eguerdiko 12:00etan, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den urtebetetzeko mezara. Aldez aurretik mila esker.
Hernanin, 2020ko irailaren 19an

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu? Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.

943 33 10 20 www.funerariaorbegozo.com

* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin

* Beilatokiak

* Errausketak

* Lekualdatzeak

* Eskelak, koroak...



Zentrala Latsunbe 7, Hernani

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

Euskal Jaiak ospatu gabe ere, bizi-bizirik egongo da Hernani asteburu honetan

Bertan behera geratu dira Euskal Jaiak, baina ekintza ugari antolatu dituzte gaur eta bihar.

HERNANI ASTEBURUKO EKINTZAK

Akaso ez da inor baserritarrez jantziko asteburu honetan, eta baserriko lanek zein euskal ohitura eta tradizioek ez dute ohiko protagonismoa izango, Hernaniko kale eta plazetan. Izan ere, bertan behera geratu dira Euskal Jaiak aurten, kultur agendari hegoak moztu dizkion pandemiaren eraginez.

Baina ari dira kultur jarduerak bere onera bueltatzeko, pixkanaka, egoera berrira egokitu-ta. Eta horren erakusle izango da asteburu hau ere: Euskal Jaiak gabe ere, bizi-bizirik egongo da herrian, ekintza ugari antolatu baitituzte gaur eta bihar, asteburua alaitzeko.

Hiruna ekintza izango dira, bi egunetan. Eta sagardoa eta musika izango dira protagonista, gaurkoan. Horrela, hasteko, bertako zein nazioarteko sagardoen dastaketa egingo dute, goizean zein arratsaldean, Atsegin-

degin. Euskal Sagardoa Jatorri Deiturak antolatu du, eta 5 euro izango dira, parte hartzea.

Eta ondoren, iluntzean, bi kontzertu izango dira herrian; baina oso toki ezberdinetan. Aurrena, 19:00etan hasita, Hernaniko Musika Banda ariko da, Karabel auzoan. Ikasturte berriko aurreneko emanaldia izango du Musika Bandak, eta erreperitorio klasiko bat prestatu dute, estilo desberdinak uztartuz. Eta toki berezia gordeko diote Ennio Morricone konpositoreari; aurtengo uztailean hil da, zinearen historiako soinu banda oso ezagunen egile izan zen musikari italiarra. Horieta bi pieza eskainiko dituzte gaur.

Atsegindegin izango da, hain justu, gaurko bigarren kontzertua. Oreka TX taldeak joko du, 20:00etan hasita. Lehenago ere Hernanin aritutakoa da Oreka TX, Txalaparta Festan adibidez; eta maiatzerako zegoen aurreikusita taldearen kontzertu bat



Auzoz auzo ibili zen Musika Banda San Joanetan, eta Karabalen ariko da gaur.

Biterin, baina bertan behera geratu zen. Gaurkoan bai, bueltan izango dira herrian, baina tokia mugatua izango da, eta gonbidapenak hartu behar dira alde aurretik, Biteriko sarreran.

Dantza saioa, artisau azoka eta pelota partiduak, bihar

Beste hiru ekintzarekin jantzi-tako eguna izango da biharkoa, goizetik hasita. Artisau azoka jarriko dute Atsegindegin, Gabiltza elkartearen eskurik, eta goizeko 11:00etan zabalduko dituzte postuak.

Kirolak ere izango du tokia biharkoan, eta esku pelota eta pala partiduak jokatuko dituzte, kiroldegiko frontoian. 11:30etan hasiko dira.

Eta asteburua borobiltzeko, dantza emanaldi berezia prestatu dute Atsegindegin: Maurizia naz ikuskizuna eskainiko du Aukeran dantza taldeak, iluntzeko 19:30etan hasita. Horretarako ere, tokia mugatua izango da, eta gonbidapenak hartu behar dira Biterin.

Emanaldian ariko da Unai Balerdi dantzari hernaniarra

ASTEBURUKO EKINTZAK

GAUR

Goiz eta arratsalde, Nazioarteko sagardoen eta Euskal Sagardoen dastaketa, Atsegindegin. Dastaketa: 5 euro.

19:00, Hernaniko Musika Bandaren kontzertua, Karabel auzoan.

20:00, Oreka TX taldearen kontzertua, Atsegindegin. Tokia mugatua da, eta gonbidapenak hartu behar dira Biteriko sarreran.

BIHAR

11:00, Artisau azoka, Atsegindegin. Gabiltza elkarte.

11:30, Esku pelota eta pala partiduak, kiroldegiko frontoian.

19:30, Maurizia naz dantza emanaldia, Aukeran dantza konpainiaren eskutik, Atsegindegin. Tokia mugatua da, eta gonbidapenak hartu behar dira Biteriko sarreran.

ere, eta gaurko Kronikan bertan kontatu dizkigu ikuskizunari buruzko kontuak zein bestelakoak, 2-3 orrialdeetan. **K**

Neska* Gazteen Topaketak bihar, Urumea Herrigunean

Goizean izango dira, «egoerara egokitutako ekintzekin»; eta parte hartzeko izena eman behar da alde aurretik, emailez.

HERNANI URUMEA HERRIGUNEA

Neska* Gazteen Topaketak antolatu dituzte biharko, Urumea Herrigunean. Goizean zehar izango dira, eta bertan parte hartzeko, beharrezkoa da izena

ematea, «segurtasun neurriak betetzeko». Horretarako, emailez idatzi behar da, hernanikoneska-gazteak@gmail.com helbidera. Informazio gehiago eskuratzeko ere, bertatik idatzi daiteke.

Goizeko 10:30etan egingo dute ongiatorria partehartzaileei, Urumea Herrigunean bertan; eta 14:00ak aldera bukatuko dira topaketak. Tartean, «egoerara egokitutako ekintza ugari» izango dituzte; besteak beste, tribial feminista edota Harrotu eta Erein ekimena. **K**

Taldean lan egitearen garrantzia, gure sektorean ere



BERRIAK
Hernani

**BIZI, EROSI
ETA MAITE
HERNANI**



HERNANI BABESTUTAKO EDUKIA

Gauza asko erakutsi dizkigute pandemia honek eta konfinamenduak. Eta horietako bat da, taldean lan egitearen garrantzia. Ekimenak martxan jartzeko eta gauzak aurrera ateratzeko, garrantzitsua da lana taldean egitea. Bakoitzak bere aldetik indarra eginez gero, oso zaila da behar dugun hori lortzea; eta aldiz, askoren

artean egiten badugu, errazagoa izango da bidea.

Horrela lortu dugu, talde lanean, merkataritza eta ostalaritza laguntzeko bonoen kanpaina, edota dirulaguntza partida. Ez zaizkigu zerutik erori, eskaera horien aldeko apustu handia egin dugu Berriak elkartetik, eta lortu ditugu, herriko merkataritza eta ostalari guztien onurarako.

Eta talde honetan, Berriak

elkartean, zenbat eta merkataritza eta ostalari gehiago izan, orduan eta indar handiagoa egingo dugu, eta orduan eta gauza gehiago lortu.

Berriak elkarteak eta bazkideek oso gertuko harremana daukagu, eta unean-unean jakin dute denek, merkataritza eta ostalaritzarekin lotutako nobedadeen berri, hainbeste informazio izan den garai honetan. Eta haien eskaera eta proposamenekin jo dugu Udalaren edo instituzioengana.

Horretarako baita elkarte bat: merkataritza eta ostalarien lana indartzeko, uneoro informatua egoteko, eta denontzat onuragarri izango diren gauzak lortzeko. Merkataritza eta ostalarien *kabezarako medikua* gara: ez gara adituak ezertan, baina bakoitza bideratuko dugu behar duen horretara, eta lortuko dugu konponbidea ematea.

Argazki lehiaketarako, epea zabalik

HERNANI MENDIRIZ MENDI

Urtero antolatzen du argazki lehiaketa, Mendizale Astearen barruan, Mendiriz Mendi elkarteak. Eta aurtengoa, 41garren edizioa izango du lehiaketak. Dagoeneko bidali daitezke argazkiak, urriaren 8ra arte, info@mendirizmendi.com helbide elektronikora. Parte hartu dezakete elkarteak, eta baita Hernanin bizi diren argazkilarik ez profesional guztiek ere. Argazkiak bidaltzera animatu dituzte denak.

ASTIGARRAGA KULTURA

Ikasturte berriarekin batera, etxe berria ere badauka Astigarragako kulturak. Aurreko asteburuan inauguratu zuten Erribera kulturunea, ekitaldi berezi batekin, eta herriko makina bat kultur talde eta artistaren partehartzearekin. Batzuk astigartar zaharrak, besteak berriak; herria bera bezala.

Herri zaharraren eta berriaren zubi izango da Erribera, zentzu guztietan: bai kultur talde eta artistak harremanetan eta elkarlanean jarritz, eta baita kopenez ere: «kulturunea bilakatuko da herrian antolatzen diren ekintzen erdigune, izan hitzaldiak, kontzertuak, literatura solasaldiak, erakusketak, zinea, antzerkiak, bakarrizketak... Baina gainera, herri zaharraren eta herri berriaren artean dago, eta bien arteko lotura egingo du. Astigartar berriak eta zaharrak elkartzeko balioko du», azaldu dute Aintzane Barandiaran kultura zinegotziak eta Amaia Usabiaga kultura teknikariak.

Dagoeneko martxan da Erribera, zerbitzu batzuekin: liburutegia zabalik dago, betiko ordu-tegiarekin (goizez 10:00-13:00 eta arratsalde 16:00-20:00); eta erakusketa aretoa ere martxan da, aurreneko lanekin: herritarrek inaugurazio ekitaldirako prestatu zituzten postalekin osatutako muntaketa. Inaugurazioko argazki batzuk ere jarri dituzte kulturuneako sarreran, eskaile-oren ondoan.

Lau solairu eta makina bat espazio, kulturuneak

Eskailera horiek dira herritarrek ikusten duten aurreneko gauza, eraikin marroi haundia- ren ateak zeharkatzean. Harrera ezkerrean, argazki erakusketa eskuinean, eta erdi-erdian eskailera, gora edo behera, eraikineko lau solairuetan barrena mugitzeko. Besterik ere badauka sarrerako solairu horrek, ordea: harreraren segidan dago liburutegia, makina bat apalategi, aulki eta mahai, eta ordenagailuekin. Haurrentzako txokorik ere ez du falta.

Sarrerako solairuan dago Pau Figueres artistak egindako murala ere, hormetako batean. Eta solairu beretik sartuko gara auditoriora ere: «orain arte ez geneukan auditorioa bezalako espazio itxirik. Antzerkiak, adibidez, modu traketsen egiten ziren... Honek beste eleganzia bat ematen dio, eta edozein ekitaldi jantzen du. Soinuaren aldetik ere, kultur etxe zaharreko aretoa oso motz geratzen zen, eta hau pentsatuta dago horretarako. Gainera, aulki guztiak atzera biltzeko aukera dauka, eta beraz, eskaini ahal izango dira eserita ikusteko kontzertuak, baina baina zutik ikustekoak ere. 284 eserleku dira, eta zutik bikoitza izango da aforoa».

Prest dago auditorioa, eta laster hasiko dira proiektzioak bertan. Emanaldietarako gune nagusia izango da, «baina ez bakarra. Auditorioa da *klasikoa*, baina eraikinak badauzka beste gune batzuk, emanaldietarako egokiak. Terraza daukagu, ederrean ederrena, eta aukera asko ematen dituena. Eta erakusketa

Herri zaharraren eta berriaren artean eta Astigarragako kulturunean

Martxan da Erribera kulturunea, aurreneko zerbitzuetan taldeek. Lau solairuko eraikinak aukera berri ugari ematen ditu; ez zuten uste hain haundia izatea kulturunearen ezberdinekoak, terraza hori... Eta auditorioa ere asko gure zinegotziak eta Amaia Usabiaga kultura teknikariak

gelan ere egin daitezke saioak, formatu txikiagoan. Kanpoko estalpea ere baliatu daiteke kontzertu eta emanaldi informala- goetarako, adibidez. Joko haundia ematen du eraikinak».

Erdisotoan edo -1 solairuan daude erakusketa aretoa, «orain arte ez geneukana»; dantza aretoa; elkarleen gelak; haurren musika tailerrerako gela; biltegi nagusia; udal artxiboa, bertara mugitu dutena; eta «ikasteko gela haundi bat», urritik aurrera zabalik egongo dena.




Bere txoko propioa izango dute irakurle txikiak, liburutegi berriaren ere.



Espazio zabala, apalategi ugari, eta aulkiak eta mahaiak dauzka liburutegiak.



Kulturuneako lau solairuetan gora eta behera mugitzeko.



«Beste eleganzia bat» ematen die auditorioak, antolatu daitezkeen emanaldi guztiei.



Terraza ere badauka Erriberak, «aukera asko» ematen dituena.

berriaren arteko zubi, ekintzen erdigune

kin; eta laster bilakatuko dute bere etxe, herriko kulturaren dizkio herriari: «oso harrera ona izan du herritarrenak, gelek hainbesteko espazioa edukitzea, hain mota gustatu zaie», azaldu dute Aintzane Barandiaran kultura arloko koordinatzaileak. Eraikinaren nondik norakoak azaldu dizkigute.

Eskaileretan gora eginda, berriaz, aurreneko solairuan daude eskulanetarako gela, yogarako gela, terraza, beste ikastaro batzuetarako gelak, eta bulegoak. Eta bigarren solairuan, azkenik, Norberto Almandoz musika eskolaren gelak, eta abesbatzek entsaiatzeko erabiliko dutena.

Norberto Almandoz zenaren pianoa, Erriberan

Beste elementu berezirik ere badauka kulturaguneak, beraiek ere espero ez zutena: Norberto

Almandoz zenak erabili zuen pianoa. «Isabel Almandozek, haren ilobak, Astigarragako herriari eman nahi izan dio, eta kulturagunean jarri dugu. Oso pozik eta eskertuta gaude, balio handiko pianoa delako».

Laster hasiko da mugimendua, kulturaguneko pasillo eta aretoetan. Musika eskola datorenen astean jarriko da martxan, urrian hasiko dira kultur ikastaroak, eta bertan izango dituzte entsaiatzeko eta biltzeko gelak, taldeek: Aiztondo eta Eragiyok abesbatzek, Txirrisklako txistulariek, Xaguxar aisialdi taldeak, Astigarte elkarteak, Astigar dantza taldeak...

Eskaientza zabalagoa izateko asmoa, aurrera begira

Eta ikastaroak eta taldeen entsaioak bezala, laster abiatuko da kultur ekintzen programazioa ere. «Udazkeneko egitaraua osatzean, orain artekoaren ildotik jarraituko dugu; eta aurrerago, joango gara ikusten zer egin dezakegun. Aurrena, kulturagunea ezagutu behar dugu, jaki-

teko nola atera zuku guztia. Eta garaia ere ondo datorkigu, gainera. Izan ere, orain udal aurrekontuak prestatzeko garaia da, eta ikusiko dugu zenbat haunditu nahi dugun kulturari eskainitako partida, kultur eskaientza zabalagoa izateko. Kultur etxe zaharreko erritmoan ekingo diogu, baina pixkanaka, espero dugu kultur agenda potoloagoa osatzea», nabarmendu dute.

Horretan, herriko talde eta artistei ere eman nahi diete toki berezia: «asmoa da, bertan antolatuko diren ekitaldiak izatea diziplina ezberdinetako artista profesionalena, baina baita herrian dauden taldeenak ere. Nahi dugu beraiek bizia ematea kulturaguneari. Lekua eman nahi diegu herriko artistei».

Beste hiru bisita gidatu bihar, Erribera ezagutzeko

Aurreko asteburuan, inagurazioaren egunean egin zituzten bi bisita gidatu, Erribera kulturagunea ezagutzeko; eta beste hiru hurrengo egunean: «txanda guztiak bete ziren, eta oso harre-

ra ona izan du kulturaguneak, herritarren artean. Jendeak ez zuen espero hain handia izatea, gelek hainbesteko espazioa edukitzea, hain mota ezberdinetakoak, terraza hori... Eta auditorioa ere asko gustatu zaie».

Bisita gidatu horien arrakasta ikusita, beste hiru saio antolatu dituzte biharko, 10:00etan, 11:00etan eta 12:00etan, eraikina ezagutzeko. Horretarako, gonbidapenak hartu behar dira, Erriberako herritarren bertan, edota astigarraga.eus web orrian, *Sarrerak erosi* atalean. Eta bihar arratsaldean, inauguraziorako prestatutako dokumentala jarriko dute berriro, 18:00etan. Horretarako ere, Erriberan edo kulturaguneko webgunean eskuratu daitezke gonbidapenak. Horiexek izango dira bi bideak, orain arte bezala, antolatuko diren gainerako ekintza guztietarako sarrerak eskuratzeko.

Gidatuak izango dira biharko bisitak, baina bestela ere, herritarrek bisita egiteko eta erabiltzen hasteko, dagoeneko atekak zabalik dauzka Erriberak. **K**



Mugitzeko eskailerak, Erriberan sartu eta zuzenean.



Erabilera ezberdinetarako gelak daude, abesbatzek entsaiatzekoa bezala.



Norberto Almandozek erabili zuen pianoa ere, Erriberan dago orain.



Dagoeneko propio apainduta daukate, arte plastikoetarako gela.



Herritarrek egindako postalekin egindako muntaketak estreinatu du erakusketa aretoa.

Kirol desberdinak martxan edo abiatzear dira, eta bailarako taldeak entrenatzen hasi dira dagoeneko

Urrian zehar hasiko dituzte euren Ligak taldeko kirol ia denak eta 'normaltasun berrira' ohitu beharko dute denboraldia behar bezala amaitzeko. Gaztetxoek gehiago itxaron beharko dute eta oraindik ez dira hasiko.

URUMEA KIROLA

Koronabirusak hankaz gora jarri zuen kirola martxoan. Txapelketa guztiak eta aktibitatea bertan behera geratu ziren eta profesionala ez den kirola ez da berreskuratuta oraindik bere osotasunean.

Udaran zehar arrauna ikusi dugu telebistan, erremontea ere hasi zen eta eskuz eta palaz pelota txapelketa batzuk ere jokatu dira. Atletismo txapelketaren bat ere jokatu da, baina gehiagorik ez. Beste kirol guztiak geldirik jarraitu dute eta orain udara amaieran denboraldia berria prestatzen hasi dira.

Egoera desberdinean aurkitzen dira denak, baina entrenamenduak hasi dituzte kirol guztietan, nahiz eta ez diren

maila guztietan hasi. Gaztetxoak oraindik ere geldirik daude kirol batzuetan.

Urrian zehar Liga gehienak jokatzen hasiko dira eta beranduago edo lehenago urte amaierarako aktibitate guztia bueltatzea espero da. Urte hasiera eskolarrak ere jokatzeak aukera izango dute. Hori bai, beti ere pandemiak uzten baldin badu.

Kirolak arriskuaren arabera sailkatu dira

Kirol Medikuntzako Espainiako Elkarteak kirolak sailkatu ditu koronabirusaren transmisio-arriskuaren arabera. Hiru mailatan banatu ditu. Arrisku baxua, arrisku ertaina eta arrisku handiaren artean. Arrisku baxua dutenen artean daude: Xakea, atletismoa, badmintona,



Eskubaloia urriaren 24an itzuliko da kiroldegira.

billarra, txirrindularitza, gimnasia, golf-a, halterofilia, igeriketa, irristaketa itzotz gainean, pelota, petanka, triatlota, tenisa, mahai-tenisa, arku-jaurtiketa.

Arrisku ertainekoak dira: Beisbola eta sofbola, futbola, areto-futbola, itzotz-hockeya, belar-hockeya, irristaketa-hockeya, padela, squash-a, boleibola eta waterpolo.

Arrisku handiko bezala sailkatu dituzte hurrengo kirolak: saskibaloia, eskubaloia, errugbia eta borroka kirolak (boxeo, judo, kickboxing-a, karatea...).

Ordiziako pista berritua inauguratuko da bihar

Lasterketa herrikoi bat antolatuko da hurrengo astean eta txapelketa ofizialen egutegia egina dago martxora arte.

HERNANI ATLETISMOA

Atletismoan txapelketak martxan daude udaratik eta bihar, igandean, Ordiziako pista berritua inauguratuko da, parte-hartze libreko proba programa batekin. Bertan korrikalari eta atleta hernaniarrak egongo dira. Aurreko asteburuan jokatu zen Espainiako Txapelketa nagusia eta taldeak neguko lasterketak prestatuko dituzte hemendik aurrera.

Donostiako Gizarte Segurantzako Kirol Patronatuarekin eta Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioarekin koordinatuta, neguko pista estaliaren egutegiaren zirriborroa argitaratu da eta horren arabera abenduaren azken hiru asteburuetan hasiko da jardura. Gipuzkoako txapelketa urtarrilean antolatu da, klubaren arteko Euskadikoa eta absolutoa bezala. Otsailean eta martxoan Espainiakoak eta gaztetxoek txapelketa nagusiak jokatuko dira.

Kros lasterketak ere antolatzea espero da, nahiz eta oraindik ez dagoen

egutegi finkorik.

Hori bai gure lurraldean jardura-programen eta -protokoloen edukia agintaritza eskudunekin adosteke dago: Udalarekin, Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin. Egutegi hori Euskadiko Atletismo Federazioak ere eztabaidatu eta onartu beharko du bere txapelketei dagokionez, baita Gipuzkoako Atletismo Federazioaren Batzarrak ere, LPei eta lurraldeetako txapelketei dagokionez..

Lasterketa herrikoie dagokionez bihar zortzi, irailaren 27an, Josex Imaz Memoriala korrituko da Beasainen. Sei hilabeteetan antolatzen den lehenengo lasterketa da Beasaingoa eta neurri bereziak hartu dira. 300 pertsonen eman dezakete gehienez izena eta 50eko sei taldetan banatuko dituzte korrikalariak. Bi minuturo irtengo dira eta maskarila irteera arte eraman beharko da.

Hala ere, Behobia-Donostia bertan behera geratu da eta azaroa bitarte antolatzen diren lasterketa gehienak ez dira antolatuko.

Igeriketa talde entrenatzen hasi da «hala moduz»

Waterpolo taldea ere martxan da, baina oraindik geldirik daude txapelketak bai igeriketan eta waterpoloan.

HERNANI IGERIKETA-WATERPOLOA

Igeriketa Munduan gehien egiten den kirola da eta igerilekuak lekuri seguru netakoak dira bizi dugun pandemiaren, baina igeriketako txapelketak oraindik ez dira hasi Euskal Herrian eta igerileku batzuetan arazoak daude entrenatzeko garaian. Hernanin igerilekua zabalik dago, waterpolo eta igeriketako taldeak entrenatzen hasi dira irailean, baina Jon Ander Isuskiza entrenatzaileak dioen bezala «hala moduz».

Federatuak hasi dira entrenatzen, eskolarrak ez, eta ordutegi eta leku arazoak dituzte. «Hernanin txandaka hartu behar dute erabiltzaileek igerilekua. Taldeak astelehen, steazken eta ostiraletan 21:00etatik 22:00etara entrenatzen dugu eta astearte eta ostegunetan 20:00etatik 21:30etara. 22 jokalarik dituzte waterpoloak eta igeriketan 16 dauzkagu. Ez da erraza. Ea urritik aurrera aukera gehiago dagoen denak batera enrenatzea oso zaila da ordu betean bi kale bakarrik baititugu».

Hori entrenamenduei dagokionez, baina txapelketen arrastorik ez dago oraingoz Gipuzkoa mailan. «Gipuzkoako federazioa mutu dago ekainetik. Ez dakigu ezerrez. Lizentziak tramitatzeak dokumentazioa ere ez digute eskatu. Lasiter jarriko da kompetizioa martxan. Ekainean borradore bat egin zen eta igerilekuen ezaugarriak eskatu ziren distantzia neurriak eta protokoloak betetzeko. Pentsatzen dut laister egingo dela egutegia eta txapelketak hasiko direla, baina oraingoz ez dakigu ezerrez». Espainiako federazioak neguko Espainiako txapelketa antolatu du eta bertan egoteko aukera izan dezaten euskal igerilariak txapelketa bat antolatuko da azaroan seguruenik. «Euskal federazioak esatu ditu aste honetan dokumentuak».

«Waterpoloaren egoera oraindik eta okerragoa dela dirudi» dio Isuskizak. «Ez dakite denboraldia noiz hasiko duten edo hasiko denik ere. Federazioek ez diete ezerrez esan eta entrenatzen hasi dira, baina egutegirik eta txapelketarik ez da oraingoz antolatu».

Esku pelota eta palak aste honetan hasi dituzte txapelketa ofizialak nagusien, jubenilen, eta kadeteen mailan

Astigarraga eta Hernaniko pelotariak eta palistak hasi dituzte txapelketa ofizialak eta denboraldi berria. Gipuzkoako binakako txapelketak atzo hasi ziren ezker horman eta gaur eta bihar osatuko da lehenengo jardunaldia 23 partidekin.

ASTIGARRAGA HERNANI PELOTA

Esku pelota eta pala bueltan dira atzotik. Entrenamenduak duela aste batzuk hasi zituzten eta 2020-2021 denboraldiko lehendabiziko txapelketa ofiziala aste honetan hasi da.

Gipuzkoako Binakako Txapelketa ari dira jokatzeko edo hasiko dira Hernani eta Astigarragako pelotari eta palistak maila desberdinetan. Bikote batzuk atzo hasi zituzten partiduak eta gaur eta bihar jarraitzen dute partidu desberdinek. Guztira 23 partidu jokatu dira eta adibidez gaur, 11:00etan, Astigarragako Txo-

miñenen seniorretan bigarren mailako partidua dago Oiarpeko bikotearen aurka.

Hernanin ere ez da partidurik faltako. Honela, gaur 16:00etan hasita, lehenengo mailako jubenil eta kadete partidu bana jokatu dira Murumendi eta Ataunen aurka., baita hirugarren mailako kadete partidu bat Lapkeren kontra. Bihar, 11:00etan, seniorren bi partidu egongo dira kiroldegian, hirugarren mailan.

Partidu denetan segurtasun protokoloa dago, frontoiaren kudeatzaileek ezarritakoak, kasu honetan bi Udalek mar-txan jarri dituztenak.



Gipuzkoako Binakako Txapelketako hasi dajokatzen.

Mutil seniorren taldea du Hernanik 20 urte eta gero

Mundarrok aurten ez du nesken talderik eta ez da eskubaloi sekziorik egongo. Ereintza eta Bera Berara joan dira jokalarik batzuk eta ikasketengatik utzi dute besteek.

HERNANI ASTIGARRAGA ESKUBALOIA

Uda eta gero, Hernani Eskubaloi Taldeko jokalariek berriro hasi dira entrenamenduekin. Denboraldia joango den argi ez dagoen arren, antolaketak bere martxa jarraitu du eta urtero bezala, bere talde guztiak pistan aritzeko prest ditu klubak. Aurten, kategoria desberdinetan, 150 jokalarik inguru izango ditug klubak, zortzi taldetan eta eskolan banatuta.

Hauek dira taldeak: Infantil bi talde; neskak (Sesa Tools Hernani ET) eta mutilak (Portu Hernani ET).

Hiru talde kadete; bi mutilenak (Sorlan Hernani ET eta Leoka Hernani ET) eta bat neskena (Alaia Hernani ET).

Bi jubenil talde; neskak (One Telecom Hernani ET) eta mutilak (Akola Hernani ET).

Aurten gainera lehenengo aldiz, 20 urte eta gero mutilen senior talde bat dago Hernanin, Anexo Hernani ET.

Talde guztiak denboraldi aurrean murgilduta egon arren, denak ez dira oraingo txapelketan hasiko. Hasiera batean seniorrak eta jubenilak izango dira beren ligetan hasiko direnak, urriaren 24 edo 25ean zehazki, eta aurrerago, kadete eta infantil kategorietako txanda helduko da. Hernani

Lurraldeko bigarren mailan jokatu du eta lehenengo partidua, Urolaren aurka, etxean izango da.

Pistak erabiltzeko zailtasuna, protokoloen beharra du klubak eta hasierako entrenamenduak herriko leku irekietan egin izan badira ere, laster kiroldegiko pistak erabiltzen hastea espero dute.

Aipatutako talde horietaz gain, Eskola dute, urtetik urtera bere kopurua haundituz do. Horien kasuan, oraindik ez dute ezta entrenatzen hasteko baimenik.

20-21 denboraldia Hernani Eskubaloi Taldearen memorian geldituko da, eta ez bakarrik koronabirusaren kriasiarengatik. «Denboraldi honetan gure proiektuaren zabaltze lanean beste urrats garrantzitsu bat emango dugu: Senior kategorian, mutilen talde bat sortzea lortu dugu. Aurreko astean, 20 urte eta gero, Anexo Hernani ET izenarekin lehen lagunarteko partida jokatu zuten, Txingudiren aurka, Irun-go Artaleku kiroldegian.

Denak ez dira albiste onak. Mundarrok aurten ez du eskubaloi talderik izango. Neska jubenil batzuk ikasketekin jarraituko dute eta beste batzuk Ereintza edota Bera Berara joan dira jokatzera.

39 urte segidan hutsegiterik gabe, Hernani lehiaketetan

Entrenamenduak aste honetan bertan hasi dituzte eta Euskal Ligako mutil seniorren taldeak urriaren 17an hasiko du denboraldia. Jubenil neskak urria amaieran hasiko dira.

HERNANI BOLEIBOLA

Boleibola itzuli da entrenamenduetara, eta honekin 39 urte segidan beteko dira boleibol taldeak daudela Hernanin. Astelehenean burutu zuten lehen saio jubenil mailako neskak eta ondoren senior mailako mutilak. 2020-2021 denboraldirako, 6 talde osatu dira oraingo, nesken 5 talde eta mutilen bat. «Helburua da mutil talde gehiago osatzea eta ahal den neurrian desoreka murriztea, beraz animatzen ditugu 2008 edo aurretik jaiotako mutilak gurekin harremanetan jartzea, eta baita neskak ere noski».

Senior mutila taldeak, iaz bezala Euskadi Ligan parte hartuko du eta urriaren 17an hasiko dute txapelketa ofiziala etxetik kanpo. Urriaren 24an lehendabiziko partidua jokatu dute etxean.

Nesken kasuan bost talde izango dira aurten eta hasiera batean denek Gipuzkoako Liga jokatu dute: Jubenil neska talde bat, bi talde kadete mailakoak eta beste bi talde infantil mailakoak. Jubenil neskek urriaren amaieran denboraldia hastea espero da. Kadete eta infantilek ez dute denboraldia hasteko egunik, baina urte amaiera aldera espero dute hastea.

Denek iaz jokatu zuten, 2008ko infantilak izan ezik, hauek aurten hasiko dira eta talde polita osatu dute. Infantilek eta kadeteek urriaren 1ean hasiko dituzte entrenamenduak.

Bizi den egoeraren ondorioz, arau orokorrak jarri dituzte eta boleibolari dagozkion beste neurri zehatz batzuk ere bai. Talde bakoitzak bere 12 baloi izango ditu eta horrela baloiak ez dituzte erabiliko taldeko ez den inork. Entrenamendu ondoren baloiak desinfektatu egingo dira, hurrengo entrenamendurako prestatuz, berdin erabiltzen den materialarekin.

Neurri hauek kostu bat suposatu dute, bereziki baloien kasuan, «ez dira merkeak. Gure kirolaren ezaugarria da kontaktu eza, eta Euskadiko Kirol protokoloak kontaktu baxuko kirola izendatu du. Honek laguntzen digu gure kirola lasaiago egitea».

Klubean aisialdirako boleibol kantxak faltan botatzen dituzte Hernanin. «Gezurri dirudi baina, herri osoan ez dago bi zutoirik sare batekin kantxarik, edozein pertsona kirol hau praktikatzeko, Mundaun egiten den hirugarren kirola izanik (igeriketa 1.500 milioi pertsona, futbola 1.002 milioi pertsona inguru eta boleibola 998.000 milioi praktikatzaile)».

«Urriaren amaiera aldera hasiko da denboraldia»

Urriaren 2an Espainiar Federazioaren batzarrean zehaztuko da denboraldi berriko errugbi egutegia.

HERNANI ERRUGBIA

Errugbi taldeen egoera ez da onena. Arrisku haundiko kirol bezala hartzen da kontutan, eta horrek entrenatzeko garaian arazoak sortu ditu. Hernani Errugbi Taldea ez da salbuespena. «18 urtez azpikoak entrenatzen hasi ziren, baita nagusiak ere segurtasun protokoloak betez. Horrek esan nahi du kontakturik gabe entrenatu dela orain arte. 16 eta 14 urtez azpikoak ez dira oraindik entrenatzen hasi» dio Juan Rodriguez lehendakariak.

Beraz txapelketak hasteko oraindik ere urrun daude talde gehienak. Urriaren 2an Espainiar Federazioaren egutegia argitaratuko da eta hor jakingo dugu noiz hasiko den denboraldia. Hasiera batean urriaren 11n Kopako finala eta bigarren mailako igoera fasea jokatu dira. Horrek esan nahi du urriaren 17-18ko asteburuan hasi daitezkeela denboraldia edo astebete beranduago. Hala ere, talde batzuk atzerapena eskatuko dute entrenamenduak kontaktuarekin egiteko. Behar bezala prestatuak egoteko denbora behar da, seguruenik urriko azken asteburuan hasiko da denboraldia. Urriaren amaiera aldera hastea espero da eta urriaren 2an jakingo da egutegia federazioaren batzarrean.

Hernaniko presidentek egoera arraroa dela dio eta zain daudela. hernaniarrak eta talde gehienak «Estatu mailako txapelketa edo ligetan parte-hartzeko derrigorrezkoa zen orain arte senior mailako bigarren taldea, 18 urtez azpiko taldea, 16 urtez azpiko taldea eta 14 urtez azpiko taldea edukitzea. Orain gazteen taldeak ez daude eta senior mailako bigarren talde asko ere ezin dira osatu».

18 eta 16 urtez azpikoak

Hendaiaren izenean Iparraldean

Gauzak dauden bezala Hernaniko taldeak Iparraldera joateko erabakia hartu du. «18 eta 16 urtez azpikoak Hendaiako taldearekin eman dute izena. Honela Hendaiak bi talde izango ditu maila horietan eta hernaniarrek bertan jokatu dute. Kontuan hartu behar da bederatzi hilabete daramatzatela jokatu gabe, izugarritzko gogoak dituzte errugbian aritzeko eta Iparraldean aktibitatea ez dago geldirik. Orain gustora daude eta garrantzitsua da. Kirolez aldatu dute batzuk geldirik ez egoteko».

Iparraldean jokatzeko ez da erabakiorra. «Gure konpromezua izan da, hegoaldean ligak hasten badira bertara itzultzea. Hartu dugun erabakia agian beste talde batzuvri ez zaie gustatuko, baina usten dugu hobereena dela».

Hernanik akademia ere jarri du abian. «18 urtez azpikoak ari dira bertan entrenatzen. 16 urtez azpikoak ez eta 14 urtez azpikoak edo eskolarrak urrian hastekoak dira. Hasiera batean urtarrilean hastekoak ziren, baina azken berria zen urrian utziko dutela».

Gero ere maila nagusiko kompetizioak nola antolatu erabaki behar da batzarrean. «Bidaiak edota lurraldeetan zehar mugikortasuna gutxitzeko klubak lurraldeka antolatzea pentsatzen ari dira, Portugalen egin den bezala».

Hala ere dena airean dago oraindik, «egoera arraroan» eta txapelketak behin hasi eta bertan behera geratzea ere posible da. «Talde askok entrenatzeko arazo larriak izan dituzte zelaia udalena direlako. Errugbiaren egoera ez da batere erraza».



Urria amaiera arte ez dira jokaldi ikusgarriak ikusiko Landaren.

Gipuzkoako futbola urriaren 17-18ko asteburuan, martxan

Ohorezko erregionala, ohorezko jubenilak eta ohorezko kadeteak hasiko dira eta astebete beranduago besteak.

HERNANI-ASTIGARRAGA FUTBOLA

C.D. Hernani eta Mundarroko futbol taldeak entrenatzen hasi ziren duela aste batzuk maila desberdinetan eta ostegunean jakin zuten Gipuzkoako liga desberdinen hasiera noiz izango den. Federazioan egin zen batzarrean erabaki zen urriaren 17 eta 18ko asteburuan hastea liga nagusiak eta astebete beranduago ekitea besteak.

Honela, Ohorezko erregionalako Hernaniren taldeak asteburu horretan ekingo dio denboraldi berriari. Mundarroko preferente mailakoak astebete gehiago egon beharko du zain. Preferentea 23-24an hasiko da. Urriaren 17an hasiko diren beste bi txapelketa jubenil ohorezkoa eta kadete ohorezkoa dira. Beste guztiak zazpi egun beranduago hasiko dira. Egutegia oraindik ez da argitaratu eta noren aurka jokatu duten lehenengo jardunaldi hori ez da ezagutzen.

Nahiz eta txapelketa ofizialak oraindik ez hasi, taldeek denbora

daramate denboraldia prestatzen. Hernaniko presidentea den Martxelo Ezpondak dioenez «lagunarteko asko ari dira jokatzeko talde desberdinak. Prestatzen ari gara».

Euskal federazioaren zain Liga Nazionala eta nesken Euskal Liga

Noiz hasiko diren ezagutzen ez dutenak euskal mailako taldeak dira. Jubenil nazionalako mutilen taldea eta nesken ligak ez du hasiera egunik oraingoz. Euskadiko Federazioa biltzeko dago eta orduan jarriko da eguna. Egun antzekoetan hasiko direla uste da.

Entrenatzen edo jolasten hasi ez diren bakarrak txikiak dira. «Albinak oraindik ez dira hasi eta eskola kirola urriaren 1ean hasiko dela esan zuen Aldundiak».

Multzoak ere adatzekotan egon dira, baina oraingoz bi itzultira jokatu da, baina pandemiaren eboluzioaren arabera txapelketak bertan-behera geratu daitezke edo ez.

Saskibaloia, urriaren 4an, lehenengoa hasten izango da

Oraindik ere batzarrean onartu behar da eguna, baina Gipuzkoan eta Euskadin egun bera aukeratu da.

ASTIGARRAGA-HERNANI SASKIBALOIA

Talde kiroletan goiztiarrena saskibaloia izango da lehiaketa ofizialak hasten. Mundarro eta Hernaniko talde desberdinak urriaren 4an hasiko dute denboraldia. Hernaniko taldearen arduraduna da Urko Vitoria eta bere hitzetan «oraindik Gipuzkoako Federazioaren batzarrean onartu behar da, baina hasierako eguna hori da eta egun horretan hastekoak gara denak». Egutegia argitaratu da dagoeneko eta ikusi daitezke lehenengo jardunaldia.

Euskal Federazioaren lehiaketak ere egun horretan daude iragarrita, nahiz eta bailarako talderik ez egon maila horietan. Gipuzkoako federazio oso gustora agertu da. «Egiaztapenerako data behin amaituta, izena emanda duten 92 taldeetatik 90ek lehiaketan parte hartuko dutela baieztatu dute (%98). Gure saskibaloian pausoak ematen jarraitzen dugu, erantzukizunetik, elkarlanetik eta sen ona erabiliz».

Mundarro eta Hernanik euren talde denak mantentzen dituzte eta


gehiago izatea ere espero dute Hernanin. «Pasa den urteko taldeak ditugu. Seniorretan bi, jubenilena eta infantil taldeko kideak aurrean kadeteetara pasatzen dira. Gero ere infantilak ditugu, baina ez talde sortzeko adina. Hala ere, hauek denboraldia urtarrilean hasiko dute eta ordurako taldea osatzea espero dugu. Bost talde izan ditzakegu. Berri ona da». Uriaren 4an talde nagusiek jokatu dute eta Hernaniko kiroldegian, Errotaundi ISB-ren aurka ariko dira.

Entrenamenduak hasi zituzten orain aste batzuk, baina geldialdi baten ondoren datorren astean ekingo diete berriz entrenamendu saioei hernaniarrek.

Astigarragako kiroldegian entrenatzen ari direnak Mundarroko mutil eta neskek dira. Lehendabiziko mailan daude bai mutilak eta neskek. Arrasateren kontra jokatu dute lehenengo jardunaldian, neskek, Astigarragan bertan. Mutilek Añorga bisitatuko dute. Beste mailako taldeen egutegia oraindik ez da argitaratu.

Labirintoa


Aurki ezazu momiarene sarkofagora iristeko bidea, gezi beltzetik abiatuta.



A	B	C	D	E	F	G	H
I	J	K	L	M	N	O	
P	Q	R	S	T	U		
V	W	X	Y	Z			

Mezua

Alfabetoari erreparatuz, asmatu zer dioen papiroak.



Margotu

Marraztu

Horra! Momia gaixoa erdizka marraztuta dago. Osa ezazu, mesedez.



Handitik txikira

Ordena itzazu katuok, handienetik (1) txikienera (5)



EGILEA: Garbine Ubeda (Aurri)
 TOKIKOMeko beste hedabideekin elkarrean argitaratutako atala.

SOLUZIOAK: Sartu www.plazanbazan.eus web atarian eta denbora-pasa hauen soluzioekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.

Orak irakurtzeko aplikazio batekin irakurri



Juanenea eta Endikak finalerako txartela dute gaur jokoan Kutxabank Torneoko finalerdian

Bi erremontistak Saldiaskoak dira eta Urriza dute zain finalean. Irabazleak bere lehenengo finala jokatuko du eta ligaxkan Juaneneak 28-30 irabazi zion Endikari orain bi aste finalerdietarako txartela eskuratu zutenean.

HERNANI ERREMONTEA

Buruz buruko Kutxabank Torneoa fase erabakiorrean sartu da txapelketa nor izango den jakiteko. Gaur finalerdia jokatuko da Galarretan, 17:00etatik aurrera, eta bertan Juanenea eta Endika ariko dira elkarren aurka. Irabazlea gaur zortziko finalera sartuko da eta bertan Urriza dago zain.

Gaurko bi aurkariak Saldiaskoak dira eta elkar ongi ezagutzen dute. Endikak eskarmentu handia du eta aurretik ere emaitza oso onak lortu ditu buruz burukoan, baina irabaziz gero bere lehenengo finala jokatuko luke. Juanenearentzako lehenengo finalerdia da eta gutxi espero zuten honaino iristea.

Juanenearen bederatzigarren partidua txapelketan zehar

Orain arte Kutxabank Tornean Juaneneak eman ditu ezustekorik haundienak eta gainera errekor bat ezarri du. Bederatzigarren partidua izango du gaurkoa eta

ez da ezagutzen erremontistarik horrenbeste partidu jokatu dituenik buruz buruko txapelketa batean. Gainera emaitza ezin hobekak lortu ditu. Bederatzigarren partidua irabazi ditu eta bakarra galdu, Urrizaren aurka. Orain hamargarren partidua jokatzea nahi du. «Ikaragarria izango litzateke eta seinale ezin hobea. Hala ere ez da erraza izango».

Endika bere aukera onenaren aurrean dago finalera sartzeko. Finalaurrekoa mugari izan da berarentzat eta Utergak, Urrizak eta Barrenetxeak finalerako txartela gabe utzi dute behin baino gehiagotan. Juanenearen aurka galdu egin zuen ligaxkan, baina behin 17 tanto egin eta gero biak sailkatuta zeuden finalerdia. «Ez dut uste erreferentzi bezala hartu daitekeenik partidu hori».

Juaneneak material indartsuagoa eta Endikak, pelota biziagoak

Juaneneak eta Endikak sei pe-



Juanenea eta Endikak pasa den asteazkenean aukeratu zituzten finalaurrekorako sei pelotak.

lota banatu zituzten asteazkenean, bakoitzak hiru, Galarretan bertan. Kantxara salto egiten lehena Aritz Juanenea erremontista gaztea izan zen. Ligaxkan bigarren geratu zen eta gorriz jokatzeke ohorea du. Hamar minutu baino gutxiagotan 129, 128 eta 127 gramoko hiru pelota sartu zituen saskian. Bere aurkaria baino pelota indartsuagoak dira, eta gehiago mugitzea kostatzen da. Aurrekoa izanda, aurreko jokoa eta pelotea interesatzen

zaizkio gazteari.

Endika Urrutiak hartu zion lekukoa material aukeraketan. Denbora gehiago behar izan zuen, eta aukeraketa egitea, ohi bezala, ez zen bere gustukoa izan. Pelotak 129, 128 eta 128 gramo pisatu zituzten. Bere ezaugarriak ez dira bere herrikiidearenaren berdinak. Pelota biziagoak eta bote altuagoak nahiago ditu, baina guztiak berdinak izatea ere ez zaio atsegin Endikari. Sakearekin min egitea eta batez

ere Juaneneak atzeko koadroetara korrika egitea du helburu.

Juanenea oso indartsu agertu da txapelketa guztian zehar. Pelota oso bizi irteten zaio eta min handia egiten du pelotean. Gainera tantoa amaitzen asmatzen ari da. Endika oso erremontista osoa da, ez du Juanenearen indarra, baina bai abilezia eta sakearekin min handia egin dezake. Aurrelaria izan da eta kantxa osoan oso ongi moldatzen da. **K**



C.D. Hernani ordezkatu zuten pelotariak eta ordezkaria.

Hernanik taldeka lehenengo txapela irabazi du Donostian

HERNANI PELOTA

C.D. Hernani taldeko pelotariak denboraldiko lehen txapela irabazi zuten, lehen aldiz taldeka jokatzen zen Euskal

Astea txapelketan irabaziz. Finala Donostiako Trinitate plazako frontoian jokatu zen eta 4-2 irabazi zioten Villabonako Behar zana taldeari.

Alebinak eta jubenilak, hauek 22-21, galdu egin zuten, baina infantil, kadete eta nagusien bi mailetan hernaniarrak nagusi izan ziren.

Antxon Korta aurreneko beteranoa Frantziako lasterketa batean

HERNANI ATLETISMOA

C.D. Hernaniko Antxon Kortak lehenengo postua lortu zuen, aurreko igandean, Frantziako lasterketa batean. 10,4 kilometroko ibilbidean, Lée-n, Pau ondoan. 125 korrikalarik hartu zuten parte eta Hernaniko lasterkariak bederatzigarren postuan amaitu zuen, baina aurreneko beteranoa izan zen helmugan 40 minutu eta bi segunduko denborarekin. Korta oso ongi itzuli da konpetiziora.

3garren Denontzat Race lasterketa urriaren 4an jokatuko da Hernanin

HERNANI DENONTZAT

Aurten hirugarren edizioa du Hernanin jokatzen den Denontzat Race hesi lasterketa, eta urriaren 4an korrituko da. Hasiera batean uztailearen 25erako zegoen iragarrita, baina pandemiaren eraginez atzeratu egin zen. Denontzat-eko kideak lasterketa desberdinetan hartu dute parte udan zehar eta beharrezkoak diren protokoloak ikasi dituzte. Horiek aplikatuz eta Udala eta Hernani Erugbi Taldearen laguntzarekin aurrera eramango dute lasterketa. Esan aurretik izena eman zuten kirolariek plaza ziurtatuta dutela. Bestetik, izena eman baina ez duenak pate hartu nahi irailaren 25era arte du epea dirua itzultzea eskatzeko. 35 euro balio du dortsalak eta lasterketa 12:30etan hasiko da. Gogoratu behar da sariak 14:30etan banatuko direla Denontzat taldearen lokal inguruan.

«Zaintzari emango diogu garrantzia, eta emozioei behar den tokia ematen ere saiaturko gara»

Aurtengo egoera berria bada ere, indar berrituta dator Gaztelekua, aurrean jarriko diren «erronka berri horiek gainditzera, eta gaztea erdigunean jartzera». Hori horrela, datorren larunbatean, irekiko ditu ateak.

HERNANI GAZTELEKUA

Datorren larunbatean, martxan jarriko da Gaztelekua. Bizi dugun pandemia egoera hau berria da, eta horrek, «erronka berriak» ekarriko dituela jakinarazi du Gaztelekuak. Hala ere, argi dute haien helburua gaztea erdigunean jartzea dela, eta gazteen «beharrak identifikatu eta erantzuna ematea».

Hori dela eta, aipatu moduan, Gaztelekuak, datorren larunbatean irekiko ditu ateak, eta lan taldeak azaldu du, haien asmoa dela «25ean bertan zerbitzua ematen hastea. Eta aurten batez ere, zentratuko gara Gaztelekua zerbitzu bat izatean, ez bakarrik espazio bat». Hau da, aisialdia Gaztelekutik kanpo ere egingo da, «gazteek beren aisialdiaz gozatzeko modu seguru bat izango dute, kaleak, eta horrelako espazioak gehiago erabiliko ditugu». Eta ekintzak kalean egingo direnez, ikusarazi nahi dute, Gaztelekua ez dela lokal bat bakarrik, «guk zerbitzu bat eskaintzen dugu, espazioaz gain».

Datorren asteburutik aurrera, presentzialki egingo dira ekintzak, «uztailean egin dugun moduan», hau da, asteartetik igandera bitartean egongo da aukera Gaztelekura joateko, edo



Gazteen senitmentuak, beldurrak zein egunerokotasunak «askatzeko» gunea ere bada Gaztelekua.

antolatutako ekintzetan parte hartzeko, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara.

«Alokairu zerbitzua jarriko dugu martxan»

Gaztelekuak, proiektu berri bat dauka eskuartean, eta laister jarriko da abian, «azarora begira». «Seguruenik, internet bidez eskainiko dugu zerbitzu hau. Eta eskainiko duguna zera da: taldeka izena eman behar da, gehienez 13 pertsonako taldeak onartuko dira, eta Gaztelekua bera alokatu dezakete, aukeraturako eta adostutako egunean. Gure helburua da, gazteek erabiltzea espazioa eta hemengo materiala, gu hemen beraiekin gauden bitartean, baina momentu horretan, apuntatu den taldearentzat bakarrik izango da espazio hori». Honekin, gazteek, Gaztelekuak eskaintzen dituen baliabideak erabiltzeko aukera izango dute, hala nola, proiektorea edo beste hainbat material. «Alokatzeko garaian, adin tarteka egingo dugu, DBH 1 eta 2; eta DBH 3, 4 eta Batxi-

lerreko lehenengo maila, eta bi egun desberdinetan jarriko dugu alokairu zerbitzua, denek goza dezaten, aukera honetaz». Hala ere, oraindik, Gaztelekuak gazteen iritziak jakin nahi ditu, hauen beharretara egokitzeko, «ea adin tartea ondo iruditzen zaien, ea zein egunetan ikusten duten bideragarriagoa alokatzea...». Gaztelekuak martxan jarriko duen alokairu zerbitzu hau, «gutziz partekatua izango da, azkenean nahi dugu gazteek izatea ahotsa, erabakitzeke ze egunetan nahi duten, nola...».

Aforoa, aurtengo beste berrikuntza

Aipatu moduan, pandemiak eragindako egoera honetan, berrikuntzak eta egokitzapenak ekarri ditu hainbat lekutara, eta Gaztelekua ez da gutxiago izango. Izan ere, «espazio segurua izateko, bai lokal barruan gaudenean bai eta kanpoan gaudenean, murriztu egin dugu aforoa. Erabaki dugu, Gaztelekutik 30 gazte pasa daitezkeela egun berean, aldi berean berriz 13

gaztek bakarrik egon dezakete». Une oro eduki beharko da maskarila, eta Gazteleku barruan ezingo da «ez jan, eta ezta edan ere». Hala ere, Gaztelekuak azpimarratu du, kanpoan egingo dituztela ekintza asko, eta hor aforoa «haunditu» egiten dela, «segurtasun neurriak mantenduko ditugu. Ondoan daukagun terrazan 30 egon daitezke aldi berean, distantziak edukita». Hala ere, ekintza eta egoeraren arabera hartuko dituzte neurriak, «kanpora goazen ekintzetan, gehienez 13 pertsonako taldea izango da». Temperatura ere hartuko zaie gazteei, eta horrez gain, beharrezkoa da «Gaztelekuko izen emate orria eramatea eta, Covid baimena. Gurasoen sinadurarekin ekarri beharko dute baimen hau, eta urtean behin betetzearekin nahiko da, baina derrigorrezkoa». Eskuragai egongo dira, aurrerago, Gazteria sailean, Gaztelekuan bertan, edo Sare Sozialetan.

Makina bat ekintza, aurrera begira

Gaztelekuak hainbat ekintza antolatuko ditu aurrera begira, hala ere, aipatu dute, hasieran dena motelago joango dela «nahi dugu jakin gazteek zer nahi duten, zein diren haien gogoak, eta horren arabera ekintzak ere antolatu nahi ditugu. Gainera, 1 DBHkoen lehen al-

dia izango da, eta horrexegatik nahi ditugu gauzak poliki egin, hauekin lehenengo kontaktua egin, soltura apur bat hartzeko». Kirolarekin lotutako ekintzak egiteko asmoa ere badago Gaztelekuan, baita sormena lantzeko tailerrak ere. Urriak 15ean adibidez, Amherrek imigrazinea eskainiko du «eta gu gazteekin goaz».

«Online zerbitzua ere, elikatzen jarraituko dugu»

Itxialdia gertatu zenean, Gaztelekuak, hainbat eta hainbat online ekintza antolatu zituen, «gazteekin kontaktuan jarraitzeko». Hori ez galtzeko, online zerbitzua «elikatzen jarraitu nahi dugu. Gure Sare Sozialek erabiliko ditugu horretarako, hala nola, Instagram eta Twitter». Horrez gain, Gaztelekuak, etorkizun «hurbil» bati begira, «blog moduko bat sortzea pentsatu dugu, gazteek beren iritziak publikatzea ahalbidetuko duena». Oraindik finkatu gabe dago, baina «espazio birtual honetan, gazteek eta Gaztelekuak partekatu ditzakete hainbat iritzi, pentsamendu...». Plataforma honekin ere, «gazteen parte hartzea sustatu nahi dugu». Eta online zerbitzu hauekin, «konfinatuta dauden pertsonen ere aukera eman nahi diegu aisialdiaz gozatzeko, nolabait».

Aurtengo erronka, «zaintza»

Gaztelekuak argi du, aurtengo erronka «zaintza» dela, «norbera zaintzea, eta bestea zaintzea, zein garrantzitsua den gure emozioei behar den tokia ematea, daukagun beldurrak plazaratzea, elkarbanatzea... eta hori guztia daukagu erronka gisa».

Gazteentzako mezua, Gaztelekuak

Orain arte bizitako pandemian, badirudi «protagonismo gehiago izan dutela, haurrek eta zaharrek, eta gazteak ahaztu egin zaizkigula». Horregatik Gaztelekuak, emozioak landu nahi ditu. «Gazteek bere lekua daukate herrian, sinistu behar dute haien buruan. Gainera, gizarteak gazteei ematen dieten lekua baino askoz ere gehiago balio dute». **K**

EGURALDIA

GAUR

Gaur eguraldi nahasiarekin jarraituko dugu. Hodeiak eta ostarre batzuk tartekatuko dira, eta egunean zehar zaparrada batzuk botako ditu han-hemenka. **Min.20° / Max.26°**

BIHAR

Bihar, ezezonkortasuna zertxobait bukiagoa izango da. Temperatura apur bat jaitsiko da. Zeruan hodeiak nagusituko dira une askotan, baina ostarreak ere zabalduko dira. **Min.17° / Max.24°**

(euskalmet)

TELEFONO ZENBAKIAK


TAXIAK 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALZAINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korroa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

FARMAZIAK

Egunez: Aguado Nagusia, 21 (Astigarraga) **943 550327** **Gauz: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738**
Goizueta: Nagusia 64 948 514353

IRAGARKI MERKEAK

58 urteko emakumea eskaintzen da gauetan gaixoak zaintzeko, bai beraien etxetan baita ospitalean ere. Eskarmentuarekin. **Deitu: 644 269 848**
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura.... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**



Zinemaldiaren 68garren edizioa distantziarekin gerturatuko da, zine ikusle eta zaletuengana

Inaugurazio gala desberdinarekin hasi zen atzo eta orain izarrak eta pelikulak ikusteko garaia da datozen zortzi egunetan. Sarrera asko salduta daude eta Johnny Deep izar haundia asteburuan Donostian ibiliko da.

URUMEA ZINEA

Pandemia-aro honetan, Zinemaldiaren 68garren edizioa zine ikusle eta zaletuengana distantziarekin gerturatzea, derrigor-itu du antolakuntzak. Eta nola hurbildu urrun egonda? Imaginazioarekin eta berrikuntzekin. Berrasmatu egin behar da eta atzoko inaugurazio galan erakutsi zuten nola egin. Zinema-aretoetara itzultzeko premia izan zuten hizpide Kurasaalean, Jon Maya dantzari eta koreografoak zuzenduta, eta Harkaitz Cano idazlearen gidoiarekin.

Aforoa %30 eta %60 artean murriztu da aretoetan

Donostia Zinemaldiko lehendabiziko hiru egunetarako 9.463 sarrera saldu ziren salmenta lehen egunean, salgai zeuden sarreren %90 baino gehiago. Zenbakia beste edizioetako datuetatik urrun dago termino absolutuetan, baina ez erlatiboetan: iaz 66.000 sarrera saldu ziren bederatzi egunetarako %100eko aforoarekin eta aurten, berriz, hiru egunetarako batez besteko %40ko aforoaren araberako portzentaje baliokidea 8.800 eserleku ingurukoa izango litzateke.

«Zinemaldiko lantaldeak eskerrak eman nahi dizkie ikusleei, urte zail honetan izugarri ondo erantzun dutelako», azpimarratu berri du Jose Luis Rebordinos, Zinemaldiko zuzendariak.

Covid-19 pandemiaren aurrean, segurtasun neurri zorrotzak hartu ditu Zinemaldiak: aretoetako aforoa %30 eta %60 artean murriztu egin da, Belo-

dromoa bezalako egoitzak bertan behera gelditu dira eta 2019. urtean baino 159 emanaldi eta 64 film gutxiago programatu dira.

Sarreren salmenta online izan da soilik, sansebastianfestival.janto.es webguneren bidez. Mailakatutako salmentaren alde egin du Zinemaldiak. Atzotik aurrera, zinema-aretoetako leihatiletan erosteko aukera ere izango da.

Gehien saldu diren saioak honakoak izan dira: *Rifkin's Festival*, *Akelarre*, *Été 85* eta *Druk / Another Round* filmak Sail Ofizialean; *Limbo* eta *Umibe No Kanonotachi / Along the Sea* New Directors sailean; *El prófugo / The Intruder Horizontes* Latinos sailean; *Wife of a Spy* eta *Nuevo Orden* Perlak sailean; eta *Nora* Zinemiran.

Zinema aretoetara itzultzeko premia azpimarratu da

Zinemaldia hasi aurretik eta inaugurazio ekitaldian zinema aretoetara itzultzeko premiari egin zaio azpimarra, orain gutxi ireki baitira konfinamendu-hilabeteak igarota, eta 68. edizioaren kartelean ageri diren loreei aipamen bat baino gehiago egingo zitzaion, June San Sebastián ilustratzaileak loreekin egindako animazioak tarteko.

Aurkezpen-oharretan Harkaitz Canok dioenaren arabera, «aurrez genituen ziurtasunak pitzatu, eta oinen pean amildegi bat ireki zaigula dirudien pandemia-garaiotan, distantzia hitzak duela hilabete batzuk imajinatzen zaila zen zentzua hartu du. Horregatik, distantzia, banatzen gaituena, bai; baina baita salbu ipintzen gaituena ere».



Dena prest dago Donostian Zinemaldiko 68garren edizioaz gozatzeko.

Woody Allen etxean eta Viggo Mortensen-ek ohorezko saria

Donostia Zinemaldiaren 68garren edizioak gonbidatu-zerrenda luzea izango du, guztiak ere parte hartu duten filmak eta proiektuak aurkeztera etorriak hirira. Gaur-gaurkoz, bertaratuko direla baieztatu dute Hollywoodeko izar batzuek, Europako eta Latinoamerikako zinemako izar ezagunek, eta zinema espainiarraren eta euskal zinemaren ordezkartza handi batek.

Johnny Depp zen ezagunetako bat da, *Crock of Gold: A Few Rounds with Shane MacGowan* (Sail Ofiziala, lehiaketan) dokumentalaren ekoizle-lanetan aritu dena oraingoan. Julien Templek zuzendutako dokumentalak *The Pogues* taldeko buru Shane MacGowan du hizpide. Zuzendaria aurkezpen-emanaldietan egongo da. Aurten, gainera, beste film musikal bat dago Sail Ofizialean, *El gran Fellove* (emanaldi berezia, lehiaketaz kanpo), Matt Dillonek

zuzendua. Dillon Donostiara itzuli da Donostia saria jaso zuenetik 14 urte igaro diren honetan.

Zuzendari-lanak ere hartu dituen Viggo Mortensen aktoreak jasoko du aurten, hilaren 24an, ostegunarekin, Zinemaldiak ematen duen ohorezko sari gorena, eta *Falling* aurkeztuko du, estreinako zuzendari-lana.

Woody Allenek, *Rifkin's Festival* filmaren zuzendariak (Sail Ofizialaren inaugurazioa, lehiaketaz kanpo), New Yorketik bi-tarteko telematikoen bidez hartuko du parte, baina bertan dira emakumezko bi protagonistak: Gina Gershon estatubatuarra eta Elena Anaya espainiarra.

Euskadiko zinemagile eta zinemagintza ere aurten protagonista izango da. K



Hipodromo Etorbidea, 10
LASARTE-ORIA. Gipuzkoa

943 37 36 13

Orduetgia:
09:30-13:30
Aurretiko hitzordua beharrezkoa da

info@noaa.eus